

URDAIBAI

2020
zenit: 22
.....

© MAGAZINE

BIZIKLETAK
aurkituko al dau
bere bidea Urdaibain?

| ARRATZU, BARRUALDEKO TURISMO HANDIA

| NAGUSIEN EGOITZEN ERRONKA

| KAROBIAK, "ENPRESA ERALDATZAILEAK"

| W. VON HUMBOLDT, EUSKALDUNEN ADISKIDEA

| Km.o, GURE ETORKIZUNA

| EUSKAL ERROMERIAK

COVID 19

JOKATU ARDURAZ ACTÚA RESPONSA- BLEMENTE



MASKARA ERABILI USA MASCARILLA

Nahitaezkoa garraio publikoan.
Obligatoria en transporte público.




ZAINDU HIGIENEA CUIDA LA HIGIENE

Garbitu eskuak eta
saiatu ezer ez ukitzen.
Desinfectate las manos
y evita el contacto.



ZAINDU TARTEA VIGILA LA DISTANCIA

Utzi ahalik eta distantzia handiena
besteekiko.
Mantén la máxima separación posible.




AURKIBIDEA

SASOI NAHASIETAN BIZIRAUTEA

Egoera dramatikoetan erresilientzia sortzen da, egoera kaltegarrietara egokitzeko dogun gaitasuna. Egokitzea, ez da etsitzea, gure ingurura begiratzea eta daukoguna airtortzea da, solidarioak izatea eta "tokian tokikoa bizitzea". Kmo kultura integratzaile eta jasangarria ezartzea, indibiduala eta kolektiboa,

Planetak behea jo eban pandemiaren aurretik. Nazio Batuek sustatutako Garapen Iraunkorreko Helburuak (GIH), aldizkariaren 20. zenbakian erabat eta publikoki identifikatu genduzanak, norabide berekoak ziran. Kontzientzia arduratsuak eta solidarioak piztu ebezan pertsona, komunitate eta herrialdeetan. Gizateriak erantzukizunez eta orain gainera koronabirusaren bidez kultura jasangarria barneratzea beste erremediorik ez dauko.

Komunikabide bat editatzea gizartean murgilduta dagoen eginkizuna da, haren isla. Konfinamenduaren ondoren, *#danonartean* aterki solidarioaren azpian, 21. zenbakia oso-osorik, erakunde publiko eta pribatuen etorkizuneko ikuspegiei ahotza emoteko egin gendun. Koronabirusaren bigarren olatua "zauriaren gainean piko egitea da". Ondorioak suntsigarriak dira, maila guztietan. Sortutako krisia zeharkakoa eta globala da. Urdaibai Magazine, ez da salbuespena eta, lerro hauetatik, Km.0 be aipatzen dogu komunikazio sozialean. Premiazkoa da ohiturak aldatzea, erresiliente-proaktiboak eta solidarioak izatea.



ARGITARATZAILEA

NUEVA EUROPA S.L

Carlos Gangoiti, 15, bajo
Gernika-Lumo (Bizkaia)
nuevaeuropa@nuevaeuropa.com
www.nuevaeuropa.eus

HARPIDETZA

Aldizkaria jaso nahi badozu, gugaz harremanetan jarri hemen:

urdaibaimagazine@nuevaeuropa.com
tel.: 94 625 06 06

www.urdaibaimagazine.eus

URDAIBAI MAGAZINE NUEVA EUROPA S.M-REN LANTALDEAK BURUTU DAU

Urdaibai Magazinek ez dauz bere gain hartzen hirugarrenen emondako eribxiak edo egindako komentarioak.

LEGE GORDAILUA: BI-153-2015

Aldizkari honek **Bizkaiko Foru Aldundiaren** laguntza jaso dau.

PUBLIKAZIOA DATA: 2020.11.09

11 KOLABORAZIOA
Begoña Andrés Elorriaga
IES Barrutialdeko zuzendaria

15 ELKARRIZKETA

- Calzada Egoitza Fundazioa
- Igorco Egoitza
- Olabe Egotetxea
- Torrezuri Egoitza
- Zelaiondo Egoitza

28 SALTSA PORRU
Indabak

30 BERDEAN
Km.0



BIZIKLETAK aurkituko al dau bere bidea Urdaibain?

Garraio jasangarrian mugitzea garrantzitsua da ingurunea hobetzeko. Eta bizikletaz bada, gainera, osasunarentzat ona da. Gure eskualdean Euskal Herri osoan bezala, aisialdiko txirrindularitzarako zaletasuna handia da, eta bizikleta garraio bide lez balidetsi behar dogu distantzia motzetarako, herri barruan mugitzeko, herri arteko distantziatarako. Garraioaren paradigma aldaketa hau gain-gainean dago eta eskualdeak eta Busturialdea-Urdaibaiko udalerriek berandu baino lehen, bizikleta bidezko mugikortasunaren erronkari aurre egin beharko deutsogu.





Europak, *smart cities*-ak, milurtekoaren helburuak (GIH), "pinoi finkoan doaz" mugikortasun iraunkorraren alde. Bizikletan mugitzea osasungarria da, fisikoki eta emozionalki; ekonomikoa, gure poltsikorako; arduratsua, ingurumena zaintzeko; eta %100 jasangarria.

Gure inguruan, gogoeta egin behar da ibilbide laburretan bizikletaz edo oinez ibiltzeak dakartzan onura indibidual eta kolektiboetara buruz eta beharrezko azpiegiturari buruz. Hiri-espazioak eta udalerrien arteko loturak ez dagoz prestatuta bizikletaz mugitzeko. Bizikletaz mugitzeko udal-planak eta eskualde-plan orokor bat beharko dira, ezinbestekoa baita lurralde osoan mugikortasun jasangarri, osasungarri eta segurua ezartzeko apustua egitea. Oinezkoentzako espazio zabalagoekaz, bizikletentzako edo mugikortasun pertsonaleko ibilgailuentzako (MPI) errege gehiagokaz eta arau barriekaz egiten da bidea.

Nondik igarotzen da geure herrietako mugikortasunaren bidea?

Denboragaz bat datorren mugikortasuna kudeatzeko, bidegorriak ezarri behar dira, ibilgailuen abiadura 30 km/h-ra murriztu behar da 2 errege baino gehiagoko kaleetan eta hiriguneetan, segurtasuna partekatzeko, bide bikoitzeko kaleetako autoentzako erreiak itxi edo murriztu, udalerrira sartzeko arteria nagusiak ez direnean, eta bizikleta-ibilbideak ezarri behar dira, galtzada gainerako ibilgailuek modu seguruan partekatu ahal izateko, eta garraio kolektiboko moduekaz intermodalitatearekin erraztu eta indartu, bizikleta garraio publikora igotzeko mugak murriztuz, bizikleta-aparkale-

kuak sortuz, batez be lantokietan, autobus-geltokietan, hiri- eta landa-aisialdiko espazioetan eta beste puntu estrategikoetan.

Erakundeek funtsezko zeregina dauke bizikletaren erabilera garraibide lez sustatzeko. Bizkaian, Foru Aldundiak (BFA) 2003an sortu eban "Bizkaiko bizikletaren Plan Nagusia", lurraldean bizikleta-azpiegituren plangintza sustatzeko eta koordinatzeko, helburu hirukoitzagaz: bizikleta garraibide iraunkor lez sar daiten bultzatzea; bizikletaren erabilera sustatzea aisialdirako eta landa-eremuak ezagutzeko eta bertara hurbiltzeko, horrela, haien garapena be bultzatzeko, eta udalerririk "Mugigarritasun iraunkorrerako Udal Jarduketa Planak" hausnartzea eta onartzea erraztuz, bizikletentzako beharrezkoak diran konponbideak jasoz.

2020an, mugikortasun jasangarriko strategiaren esparruan, nazioartean adituek lurraldea sakon aztertu ondoren, *Bizikletaren Liburu Zuria* argitaratu dau, bidegorrien sarearen garapenean eta eraikuntzan aurrera eginez, Bizkaiko hainbat puntu estrategikoki lotuko dabezena. Azpiegituren sorkuntzari dagokionez, Liburu Zuri honek zenbait irizpide hartzea proposatzen dau, hala nola "sarea koherentea izatea eta jatorriak, helmugak eta garraio publikoarekiko loturak konektatzea, ahalik eta ibilbide zuzenena eskainiz ... eta segurtasun-baldintza egokietan".

Dokumentuak "azpiegitura seguruak eta beste garraibide batzuetatik bereiziak sortzea proposatzen dau, pertsonen bizikletaz joatea aukeratzeko modurik eraginkorrena izango dalako", eta txirindulariek eta beste ibilgailu edo oinezkoen bide publiko bat partekatzeke daukeezan aukerak jasotzen dauz.

Bizikletaren Liburu Zuriak bizikleta-sarearen hiru maila bereizten dauz: lurraldekoa (30 kilometrorainoko joan-etorriak egiteko aukera emoten dauena), tokikoa (auzoak, herriak eta hiriak lotzen dabena) eta oinarritzkoa (udalerrian bizikletaz ibiltzeko erabil daitezkeen bide publikoak). Bizikleta-aparkalekuak zelan aukeratu eta zelan kokatu be aipatzen dau, eta bizikletak aparkatzeko leku hoiak beste garraibide batzuekiko konexioetatik gertu egotearen garrantzia azpimarratzen dau, hala nola tren-geltokiak edo autobus-geltokiak.

Dokumentuaren arabera, *"beharrezkoa da Bizkaiko garraibide horren erabilera monitorizatzea"*.

Bizkaiak bizikletentzako azpiegitura-sare bat sortu dau aipatutako "2003-2016 Bizkaiko bizikletaren Plan Nagusia"ren eta udal-ahal-eginen bidez. 2003an, BPN onartu zanean, Bizkaiak bizikleta-bideen 50 km inguru eukazan. BPN sortzeak 364 kilometroko oinarritzko sarea diseinatu eban Bizkairako, 9 ardatzetan antolatuta. Gaur egun %163an handitu da planifikatutako bizikleta-bideen kilometro kopurua, eta %635an egindako bizikleta-bideena, udalerriek bertako bizikleta-sareen garapenean eta plangintzan daukeen inplikazioari esker. Ildo horretan, bizikleta-ardatz barri bat sartu da, Lea Artibaikoa, guztira 10 ardatz osatuz. Gaur egun, bizikleta-bideen oinarritzko sarea egindako 400 km-ra iristen da. Aldundiaren apustua bizikleta-sare jarraitua lortzea da, pixkanaka, ez hain zatikatua.

Bizkaiko bizikleta-bideen sarearen esparruan, 2019ko abenduan, lurralde osorako aurreikusitako 957,2km-ko Urdaibai ardatzak

58km eukazan aurreikusita, 30,9km eginda, 1,2km eraikitzen, 2,6km eraikuntza-proiektu idatzian eta 23,3km planteamenduan.

Azpiegitura sendo bat martxan dagoela, orain behar dana eskaera egotea da, gero eta gehiago izan gaitezen egunero mugitzeko bizikleta aukeratzen dogunok, eta erronka horrek "bizikleta-kultura" sustatzea eskatzen dau.

Prest al gagoz Urdaibain bizikletaz ibiltzeko?

Bizikleta aisialdirako zaletasuna ukaezina da Urdaibain, baina "bizikleta-kultura" falta jaku. "Ibiltzera irtetea" oso errotuta dagoen eskualde batean, bizikletan ibiltzeak, aisialditik haratago, pentsamoldea eta bizimodua aldatzea dakar. Iker Oleaga Urdaibai Txirringularitza Eskolako arduradunak argi dauko: *"Ez dugu bizikleta-kulturarik, ikusi besterik ez dago zenbat gurasok eramaten dabezen autoz seme-alabak eskolara. Baina ez dago bizikleta-kulturarik orokorrean, mugikortasun iraunkorraren aldeko makropolitika ez dator bat mikropolitikagaz. Ikusmena eta borondatea behar dira. Bizikletentzako ibilbideak diseinatzeko dabezenak ibilbide hoiak erabiltzaileak izatea edo, gutxienez, interesa izatea. Gauzak maitatzea bezain erraza da. Zenbat eta gehiago ezagutu gauzak, orduan eta gehiago zaintzen dira"*.

Azpiegitura onak funtsezkoak dira gero eta erabiltzaile gehiago eguneroko bizimoduan bizikletan ibiltzera bultzatzeko, lanera, eskolara, institutura edo erosketak egitera joateko. Baina Busturialdea bizikletari egokitu al dago? *"Ez. Itsasadarreko (Erreka Egala) azpiegiturretan gauzak ondo egiten ari dira, San Kristobal-Murueta-*



Herri barruko bidegorria Gernika-Lumon

Zergaitik bizikleta?



Gernika-Lumoko institutuko bizikleten-aparkalekuak

GARAPEN EKONOMIKOARI LAGUNTZEN DEUTSO

- o Motordun zirkulazioak eragindako istripuen ondoriozko kostuak murriztu
- o Osasun publikoan aurreztu
- o Inbertsioa politika ekologikoetan eta CO2 isuriak murrizteari lotutakoetan
- o Bizikletak eta osagarriak kantitate handian ekoiztea, fabrikatzea, saltzea eta merkaturatzea
- o Bizikletak konpontzen, ekoizten edota berreskuratzen irabaz daitekeen eskulana
- o Tokiko merkataritzaren alde egiten dau, bizikletan gutxiago kargatzen dalako, baina gehiagotan bueltatzen da. "Bike friendly" eremuek negozioien eta jabetzen gainbalioa handitzen dabe

INGURUMENARI LAGUNTZEN DEUTSO

- o Isurketa kutsatzaile gutxiago. Atmosferaren kutsadura murrizten da
- o Kutsadura akustikoa gutxitzen da, eta trafikoaren arintasuna errazteaz gain, giro osasuntsuak sortzen dauz
- o Inguruneagaz gehiago elkarreragiteko, ingurumenarekiko kontzientziazio-mailak aktibatzeke eta aire zabalean gehiago azaltzeko aukera emoten dau

OSASUNAREN ALDE EGITEN DAU

- o Pertsona fisikoki eta mentalki indartzen dau
- o Pedalei emotea kaloriak erretzen dauz eta bihotzarentzat onuragarria da. Erritmo ez oso gogorreko bizikleta ordu bategaz 500 kaloria inguru erretzen dira
- o Bizikletan ibiltzeak hanketako giharrak tonifikatzen dauz, hala nola kuadrizepak edo iskiotibialak
- o Gerrialdea sendotzen dau. Bizkarraren oinarriaren erresistentzia hobetzen dogu eta, luzera, herniak izateko aukera murrizten dogu
- o Belaunak indartu eta lesioak prebenitu egiten dauz
- o Neurri handi batean estresa murrizten dau. Bizikletaren gainean, zure pentsamenduen jabea zara
- o Gure sistema immunologikoa handitzen dau eta hobeto babesten gara gaixotasunetatik. Gainera, jarduera kardiobaskularrak endorfinen segregazioa areagotzen dau, zorientasunaren hormona

tik Gernikara eta Gernikatik Gautez Arteagara. Baina hortik kanpo bapez. Urdaibai eskualde zentralista da, herrietatik Gernikara mugitzea posible da, baina ez herriz herri. Ajangiztik Arratzura ez dago bizikleta biderik eta hori 2 kilometro dirala. Arazoa da herriek beren parte egiten dabela eta kito, ez da pentsatzen bideak lotuta egon behar dabenik eta ez zatituta. Hemen ez dago horrelako bizikleta-sarerik. Antzinako bideak logikoak dira, orain ez da horrela egiten. Agian Forutik Muretara doan bidegorriak ez eban errepi-dearen paraleloan jarraitu behar. Bizikleta ibilgailu desberdina da, zergatik jarraitu behar dogu autoaren bidea? Bizikletaz joateko, logikoagoa da trenaren ibilbidea jarraitzea, Europako bide berdeetan egiten dan lez."

"Bizikleta-kulturan" hezteka, batez be gaztetxoan artean, gaintitu barik dagoen gaia da. "Urdaibai Txirindularitza Eskola" bezalako ekimenak hau sustatzeko lanean ari dira. Iker Oleagak horren alde egin dau, "Txirindularitzari beste ikuspuntu bat emon gura geun-tsozan, errepidetik atera eta lehiakorra izan ez daiten, lehiatu gura

dabenak horretarako aukera badauko be. Ia etxe guztietan mendi-ko bizikleta bat dago. Mendi irteerak egiten doguz. Iaz hasi ginan eta pandemiagaz aukera ikusi gendun. Argi izan gendun haurrak aire zabalera ateratzea osasungarria zala. Ekainean kampusa egin gendun eta izandako arrakasta ikusita (125 lagunek emon eben izena), ikasturteari jarraipena emotea erabaki dogu. Astean bi egu-netan ateratzen gara, lau taldetan: Lumo, Bizkargi, Arrola eta Oiz, 7 eta 14 urte bitarteko umeez. Haurrentzat oso onuragarria da, arduratsuak izaten ikasten dabelako, gizentasun-arazoak gutxitzen dabelako eta autoestimua bultzatzen dauelako."

Bizikletaren erabilera sakontzeak zeharkako ondorioak dauzka; ingurumenaren, osasun publikoaren, lurraldearen kudeaketaren eta landa- eta hiri-paisaia kontuan hartzearen inguruko kontua da. Urdaibaiko Biosfera Erreserba Zerbitzuak mugikortasun iraunkor-raren arloko lehen urratsak emon dauz. Nicolás Garcia-Borre-guero zuzendari kontserbatzaileak proposatutako lan-ildoaz azal-du dau: "Urdaibaiko Biosfera Erreserbak aurrera egin gura dau

Ba al zenekien...?

Bizikletak ez dira jostailuak, garraioa dira, eta oso la-gungarriak izan daitezke krisialdietan:

- Lehen Mundu Gerran bizikletek zaurituak eraman ebezan lubakien irisgarritasunik ezetik. Eta Bigarren Mundu Gerran bizikleta garraio-bide egokia izan zan tropa aliatuen mezularientzat, holandar, daniar eta ingeles hiritar eta espioientzat, arin eta isilpean mugitzeko orduan. Horregatik, naziek konfiskatu egin ebezan.
- Bizikleten erabilgarritasuna hondamendiei aurre egi-teko, barriz be frogatu zan 2017an Mexiko Hirian izan-dako lurrikararen ondoren.
- Minneapolis, Vancouver, Budapest, Viena eta Auc-klant bezalako hiriek, besteak beste, bizikleta-errei eta bizikletan ibiltzeko sare bat prestatu dabe beren kale nagusietan COVID-19aren aurrean. Automobi-laren espazioa bizikletari berresleitu deutse, kutsat-zeko beldur barik garraiatzeko modu osasungarria emonez



ZAINDU ETA GOZATU

A

ratzu



biztanleen, langileen eta bisitarien mugikortasun-beharrak aldi berean asetzera eta haien bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzea lortzeko dauen eredu baterantz. Horretarako, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Mugikortasun Iraunkorreko Plan bat landu gura da, alde batetik, mugikortasun aktiboa sustatzeko eta motorrik gabeko inguruneetan, oinezkoen eta bizikleten sarea hobetuz eta zabalduz. Bestetik, garraio publikoko mugikortasuna eta intermodalitatea handitzeko helburua be planteatu beharko litzake. Azkenik, erregai fosilak erabiltzen dabizen ibilgailuen inpaktu negatiboa are gehiago murrizteko, egungo parkea ibilgailu elektrikoetara edo emisio gutxioko ibilgailuetara aldatzea sustatu beharko litzake. "

Urdaibai dibertsitatearen paradisia da, baina bizikleten mugikortasunaz ari garenean be bai? "Urdaibaiko Biosfera Erreserbak oinezkoentzako ibilbideen eta bizikletentzako bideen sare zabala dauko, behar bezala seinaleztatuta eta bisitariak bitarteko digitalen bidez erabiltzeko moduan. Halan be, bien arteko lotura egiteke dago. Horregatik, beharrezkoa da erreserbari bizikleta-sare jarraitua emotea,

garraio publikoko geltokiekatz konektatuta. UBEko 22 udalerrien morfologia oso desberdina da; beraz, kasu bakoitzerako, premiak banaka aztertu beharko dira ", adierazi dau Nicolás García-Borreguerok.

Urdaibaiko Biosfera Erreserban, zelan egiten da lan horretan? Erantzuna Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Zerbitzutik datorkigu: "Mugikortasun jasangarriaren eredu barri hori lortzeko, Planak bere esku-hartze ardatzen artean sartu beharko dau informazio- eta sentsibilizazio-kanpainak egitea, mugikortasun jasangarriaren aldeko kultura-esparru bat eraikitzeko, ohiturak aldatzen lagunduko dauena. Zalantza barik, UBEen eskumena daukeen erakunde publikoen eta erakunde pribatuen arteko koordinazio eta lankidetzak egokiarri estuki lotuta dagoen plan bat ezartzearen arrakasta. "

Landartartasuna ziklabilitatearen aliatua?

Ezin dogu ahaztu geure eskualdearen landartartasuna, herri eta auzo sakabanatuekatz, bidezidor naturalekatz eta, kasu batzuetan, lotura zailekatz. Landa-mugikortasun iraunkorraren espezifikotasuna geure herri batzuetan islatzen da. Bidein Ingeniaritzako Cesar Gabiola Bide ingeniariak, Arratzun bidegorri-proiektuak diseinatu dauzenak, zailtasunak ezagutzen dauz: "Oro har, landa-eremuko udalerriak eta, zehazki, sakabanatutako auzoak errepideen edo bideen bidez lotuta dagoz, oinezkoentzako edo bizikletentzako berariazko babes barik. Bizikletaren alternatiba ez da sarriegi erabiltzen, errepideko kirol gisa izan ezik, seguruenik erabilera horrek, batez be txikienezkat, dakarren arriskuagatik."

Landa-eremuetako zailtasun geografikoak gainditzea geure udalerrietako batzuk erabat murgilduta dagozen erronka da, bizikletatz edo oinez konektatzeko egokia dan bide bat egiteko zailtasunak gainditzen saiatuz. "Horrelako landa-bidegorriek inbertsio handiak eragiten dabek aurrekontu mugatuko udalerrietan. Zailtasun ekonomikoa udalatz gaindiko erakundeen diru-laguntzen bidez salbatzen da, eta kostuak ahal dan neurrian murrizten dira. Diseinuak, batzuetan, tarte laburretan aldapa handiegia erabiltzea eskatzen dau, eta, oro har, Urdaibain, Patronatuak onartutako bidezidor ereduak erabiltzea, ingurumena aldetik jasangarriak diran materialen erabilera bermatzeko. Arratzuren kasuan, azken urteotan auzoak elkarren artean eta



Landa-eremuko bidegorria Arratzun

Arrien Optika



Urkieta k. 10

Tel./Fax: 946 25 63 63

Email: arrienoptika@yahoo.es

 Visit Urdaibai
© bai Nueva Europa

**IBILBIDE
TURISTIKOAK**

Kulturalak eta ekologiakoak top

**KARTARA, UMEEKIN
URTE GUZTIAN ZE HAR**

Erreserbak: www.visiturdaibai.com

ondoko udalerriekaz, bereziki Gernika-Lumogaz, lotuko daben sare sustatu da, eta errepide ondoko zati batzuen trazadura kokatzeak anbizio handiagoko diseinua ahalbidetu dau materialen iraunkortasunari eta asfalto gorriko akaberak daukeen azpiegituraren zabalerrari dagokienez. Beste batzuetan, baserrietara sartzeko bide asfaltatuak aprobetxatzen dira, abisu-seinale espezifikoak jarrita. "

Konexioak bereziki zailak diran guneeetan, herri bakoitzak behar eta idiosinkrasia espezifikoekaz, bidegorriaren figurak funtzio bikoitza bete daike: bide-lotura eta funtzio soziala. "Landa-eremuetan, bidegorriak oinezkoak eta bizikletak partekatzen dabizen bidetzat hartu behar dira, ezinezkoa baita, udalerrri handi eta hiritarretan bezala, oinezkoentzako espazio espezifikoak (espaloiak) eta bizikleta (bizikletentzako bideak) ordaintzea. Hau dala eta, landa-bidegorriak ez dira sartzeko Bizkaiko Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektorialean. Bidegorriek landa-eremuan daukeen funtzio soziala, funtsean, biztanlegune isolatuak elkarren artean edo gune handiagoez lotzea da, ibilgailuen trafikotik berezitateko ibilbide seguruen bidez. "

Cesar Gabiolak Arratzuko adibidea deskribatu dau landa-konexioko sare lez: "Arratzuren kasuan, laster Loiola eta Uarka arteko bidegorria egingo dau, sare bat osatu gura da, udalerrriko landa-gune garrantzitsuenak Gernika-Lumogaz lotzeko, eskualdeko nukleo gisa, eta Mendata eta Kortezubi mugakideekaz. Halaber,

garrantzitsua da ikastetxeekiko lotura, hala nola Barrutikoa, eta Donejakue Bidea igarotzen dan Santo Tomas elizarekiko lotura. "

Busturialdean, gure herri askoren landatasuna Mundakaren eta eta eskualdeko udalerrri nagusien, Bermeo eta Gernika-Lumo, izaera hiritarrenagaz batera bizi da. Espazio hoietan, bideak unean uneko behar sozioekonomikoen arabera eboluzionatzen dira. Al-daketa hoietan bizikleta bidezko mugikortasunaren aldeko apustu garbia islatzea erronka bat da oraindik gure eskualdearentzat.

casa de juntas
Gernika
batzarretxea



casa de juntas
Abellana
batzarretxea

casa de juntas
Gerediaga
batzarretxea



sede
Bilbao
egoitza

Hurtado de Amezaga, 6
www.jjggbizkaia.eus

Bizkaiko Batzar Nagusiak



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Juntas Generales de Bizkaia

GERNIKAKO LANBIDE-HEZIKETAREN 75.URTEURRENA

*Ekoizpen-sare aldakorrera egokitzeko
erronketan oinarritutako ikaskuntza*

BEGOÑA ANDRÉS ELORRIAGA



IES Barrutialdeko zuzendaria

Gernikako Lanbide Heziketak aurten 75 urte bete ditu. 1945 urtean jaio zen gaur egungo Kultur Etxean, herriaren erdian, "Regiones devastadas"-ek gerra ostean eraiki zuen gunean. Gernikar askorentzat "Artes y Oficios". Urte ikaragarria izan zen.

Hain zenbaki borobila ospatu behar zela pentsatzen hasi gineanean, zera erabaki genuen: zelan heldu garen hona hausnartu barik, inportanteena nor garen pentsatzea zela; eta zerbitzu publikoa garen heinean, zer-nolako funtzioa betetzen dugun erabakitzea. Horretarako Busturialdeko sare produktiboaren partaide diren pertsonekin batzea interesatea zela erabaki genuen, ideiak elkarbanatzeko. Enpresek zer behar dute? Balorea sortzeko prozesuan zelan lagun dezakegu? Enpresek zer espero dute datozen belaunaldien aldetik? Ekitaldiak bertan behera utzi behar izan ditugu, baina sortu dugun hartu-emonekin jarraitzen dugu, eta prest gaude enpresen aldetik ideiak jasotzeko.

Zerbitzu publikoa gara; beraz, zer eskaini dezakegu? Ikasleak formatu eta tituluak banatzen ditugu. Oraingo erronkarik funtsezkoena ingurune ekoizle aldakorrari egokitzea edo jarraitzea da. Eta hori ez da erraza gure moduko hezkuntza eredu zurrun batentzat. Hori horrela, Lanbide Heziketako eredu, gaur, erronketan oinarritzen da, ataza zehatz baten aurrean, norberaren gaitasun eta trebeziak aplikatzean datza. Arazoa konpontzea helburua dela.

Momentu honetan irakaskuntzari ez diogu eskatzen ezagupenak irauli egitea ikasleen gainean. Ez hori bakarrik behintzat. Ikasleek lanean aurki ditzaketen arazoei aurre egitea baino. Honek gaitasun berezi batzuk eskatzen ditu, esaterako: komunikatzeko trebezia (ahoz zein teknologikoa), lantaldean ekiteko gaitasuna, ideiak sortzeko eta azaltzeko erraztasuna. Ikastetxeak pertsona horiek bultzatzeko haztegia izan beharko ginatke.



Zereginekin jarraitzeko, beste bat azpimarratzen dugu: inguruko enpresei zerbitzua eskaintzea hain zuzen, ahal dugun neurrian, eta industria sareko lantegi txikienei gehien bat. Ezin ditugu ikasleak enpresen esanetara moldatu, baina bai egokitu eta lagundu merkatu-eskari aldakor, konplexu eta zorrotz bati aurre egiteko. Honek ikastetxe eta lantegien arteko etengabeko lankidetzat eskatzen du: ezagupenak elkarbanatu, ideiak sortu, langileak prestatu (programa bereziak daude horretarako), edo hezkuntza sailak gure esku jartzen dituen baliabideak erabili. Helburu handiegia dela ematen du, eta bada, baina ekimen gunea izan nahi dugu. Seguruenik, eta azaldu nahi dugun egoera definitzekotan, sinergia izango litzateke berbarik onena, sinergiak sortzea nahi dugu.

Gure zereginak horrela definituta, gure erronkak dira. Eta beste bat aipatuko dugu. Guk eskaintzen ditugun hezkuntza familiar industria arlokoak dira, eta sakon maskulinizatuta daude. Industriak lanposturik onenak sortzen ditu, enplegu tasa handia du (krisiaren aurretik behintzat), soldadak ere bai, eta egonkortasun altuagoa. Gaur egungo tailerrak ez dira lehengoak, aldaketa teknologikoetara egokitzen ari dira eta. Baina, hala eta guztiz ere, belaunaldiz belaunaldi, emakumeok zaintzak eta zerbitzuetara jotzen dugu. Industrian emakumeen partaidetza altuago batek "brecha horizontal" delako hori apurtuko luke.



BISITA GIDATUAK

Visit Urdaibai
© bai Nueva Europa

1. Gernika-Lumo eta bere bizilagun eromatarra
2. AROTZ, eguraren ibilbide turistikoa
3. Bizkaiko Zin-Bidea Urdaibain
4. Baleak ababorrean, artea istriborrean

**URDAIBAILAU
URTAROTAN**



ARRATZU

BARRUALDEKO TURISMO HANDIA URDAIBAIN

Urtaro honetarako plan ezin hobea proposatzen deusugu, Urdaibaiko barnealdea ezagutzeari. Arratzun, Gernika-Lumotik 5 kilometrora, egun aparta igarotzeko aukera paregabea aurkituko dozu: paseatu edo ibilaldiak egin, ondare historiko baliotsua ezagutu, txoko bereziak bisitatu eta gastronomia dastatzeko geldialdia egin. Natura eta historiaren arrastoa sentitzeko eta gozatzeko herria da Arratzu, xarmaz betetako

Aukeren katalogoa interesgarria bezain bizia da. Hurbil zaitez Gollako ibaiaren ertzetara, Arratzuko ibai-arima, Artzubiko basoaren hegala itzaltsuetatik Uarka ibarreko belardi berde biziraino serpenteatzen dauena. Bere bideak, Artzubiko zubi airosua edo antzinako burdinolen aztarnak bezalako sekretuak gordetzen dauz.

Bere auzoak ezagutu, paisaian integratzen direnak, eta historia eta bizipenez betetzen dabe ingurune natural abegitsu eta askotarikoa. Bakoitza, zelai, baso eta ibaiez osatutako postal bizi bat da.

Arratzun, kalidadea da adjektibo nagusia. Bizi-kalidadea, ingurune naturalarena, ondare historikoarena eta bere instalazioena.

ARROLA ETA ARROLAGUNE

Jatorrira bidai

Arrola mendiaren inguruetan, Kantauri Ekialdeko Burdin Aroko kastrorik handiena bisitatu ahal izango dozu. Arrolako *oppidum*a, 2.300 urte baino gehiagokoa. Bertako harresi izugarriak, sarrerako ate erraldoiak eta bertako biztanleek bizi izan ebezan etxebizitzak hondarrak, lurraldea menderatzen dauen talaia baten gainean dagoz, Urdaibaiko paduraren gaineko bista ikusgarriekaz. Loiola auzotik sartzea gomendatzen deusugu.

Kultur txango erakargarri hau osatzeko, Loiola auzora itzulita, Arrolagunera joan zaitezke, Arrolako *oppidum*aren Interpretazio Zentrora. Ilkerketa arkeologikoak fideltasunez jarraituz, eta, interpretazio-panelen eta berreraikuntzen bidez, informazio guztia

jartzten dau zure eskura, *oppidum*-a zelakoa zan eta bertako biztanleen eguneroko bizitza zelakoa izan behar eban bere unerik distiratsuenen azalduz.



ELEIXALDE-ARTZUBI-SANTO TOMAS INGURUA, *natura eta historiaren arteko besarkada*

Eleixalde auzoa, Loiolatik kilometro pare batera, erromesen pasabide eta kostaldeko Donejakue Bidearen interesgune da duela mende batzuetatik. Leku honetan, historiak beteta eta denboragabetasun eta lasaitasun giro batean bildua, asko dago ikusteko distantzia laburretan. Santo Tomas eliza da auzoko muinoaren burua. Harlanduzko kontrahorma sendoek, perimetroko arkupe handiek, Iturriza historialariak 1785ean jada honela deskribatu ebazanak: *"Inguruan lauzazko hilerri luzituak, Bizkaiko eliza bakar batek bez daukozenak"*, eta bere dorre soil eta handiak eraikin monumental bat osatzen dabe. Bere barnealdea, bere bolumen eta harmoniagatik harritzen dau. Elizak, hegoaldean, elizateko antzinako mahaia mantentzen dau, *txopitel-arria* lez ezagutzen dana.

Done Jakue Bidea Eleixalde auzora iristen dan leku ederra da Artzubiko hariztian barrera ibilaldi lasaia egiteko lekurik egokiena. Naturak agintzen dauenean eta zuhaitz bakoitzak adaburu handiak gara ditzakeenean, eta basoa eta oihanpea bizirik eta era askotara bizi diranean haritz-basoak zelakoak diran ikusteko adibide bikaina da. Bidean, Artzubiko zubi zaharrak, erdi-puntuako arku airosoa altxatzen dau, Golako ibaiaren gainean, eta agertoki idiliko bat osatzen dau, zentzumen guztiekaz gozatzeko.



AUZOETAKO IBILALDI "OSASUNGARRIA"

Loiola, Belendiz, Barrutia eta Olesko auzoak lotzen dabezen errepide eta landa-bide txikien arteko pasealekua da Arratzuko landazabal lasaia ezagutzeko modurik atsegina. Bien bitartean, baserri, ermita eta dorreen katalogo interesgarria dogu, Barrutia eta Belendiz, esaterako. Bidearen uhin leunetan, zelaia, ortuak eta landaketak agertzen dira, besteak beste, bertako produktu tradizionalak eta Arratzuko produktu izarra bihurtu dana, kiwia. Belendiz eta Olesko lotzen dabezen "ibilbide osasungarriak" ibilaldi hau paisaiaz gain beste kezka barik egiteko beharrezko argibideak emoten deuskuz.

Oleskon aperitibo bat eta Loiolan bazkari eder bat dira, hain zuzen be, bidai atsegin horri osagai gastronomikoa gehitzeko modu egokiena, giro onaz eta gastronomia hobez betetako guneetan.



Funeraria Tanatoria
IZARO

GERNIKA
C/Don Tello, 18
Tel.: 94 625 83 23

BERMEO
Bizkaiko Jaurreia, 21
Tel.: 94 618 63 78

izaro@funerariaizaro.es

ferrovial
servicios

BETI HIRITARREN ZERBITZURA
INGURUGIROA ZAINTZEN

Bekoibarra, nº31 / 48300 Gernika-Lumo / Tel. 625 47 27

ZEURE

B
PLANA

**BASKE
PENSIO
NES**

BANAKAKO BGAEa
Kutxabank SA
Bazkide
sustatzailea.
Kutxabank
Gestió IKESK
SAU Ondare
Kudeatzailea.



*“Edozein unetan etorkizuna
hobetzeko aukera duzu”*

KUDEATU ZEURE PLANA ONLINE BANKATIK.

Baskepensioneserako
aldizkako
ekarpenen
programazioa.

Planifikatu
online
erretiroa.

Kontratazioa eta
gestioak online.

Ezohiko
ekarpenak.

Kontsultak
eta kontaktua
zure kudeatzailearekin.



Sustapen honen barruko planen arrisku-maila
maila txikiaren eta oso handiaren artekoa da.

kutxabank



NAGUSIEN EGOITZAK,

birusaren aurkako hesiak
kolektibo ahulena babesteko

Koronabirusa bereziki gogorra izan da geure nagusiekaz, eta jo egin dauz, osasunean ez ezik, baita ariman be. Egoitzetan ospitaleratuta egozenez ikusi dabe, egun batetik bestera, seniderik ez ebela bisitatzen, eta urduritasunak, beldurrak eta ziurgabetasunak dana harrapatzen ebal. Pandemiaren lehen olatuan, guztira 697 euskal egoitzetako egoile COVID-19-ak jota zendu ziran. Udak atsedena emon eutsezan langileei eta egoiliarrei, baina udazkenagaz kontu handiz ibili behar da barriri. Pandemia horrek egoitzen kudeaketa proban jarri dau, eta langileen konpromisoa eta gogoia agerian utzi dauz. Kontingentzia-planak, baheketak, NBE jantziak, zeharoko garbiketa, espazioen sektoriazioa... egoitzen egunerokotasunaren parte dira, haien lan egiteko modua. Era berean, langileek egoiliarrei eskeinitako maitasuna, babesa, entrega eta konpainia be nagusitu da. Gaur egun, egoitzek ezagutza eta bitarteko gehiagokaz egiten deutse aurre

bigarren olatuari, egoiliarrek COVID-19tik eta bakardadetik babesteko helburu argiagaz.

Egoera horren ondorioz, Bizkaiko Foru Aldundiak, mendekotasuna artatzeko zerbitzuen arduradunak, lehenetsuna emon deuto eta ahalegin handia egin dau arlo horretan. Gizarte-zerbitzuak foru-erakundearen lehenetsunezko ardatza dira, eta EtxeTIC garatzea proposatzen dabe, egoitza-eredu "gizatiarragoa", etxean bizitza independentea sustatzen dauena teknologia barrien laguntzagaz.

Urdaibai Magazinek Busturialdea-Urdaibaiko egoitza guztiekaz berba egin dau bere egoera bertatik bertara ezagutzeko. Jarraian, Calzada, Igurco, Olabe, Torrezuri eta Zelaiondo egoitzek kontatuko deuskue.





Argazkia: Calzada egoitza fundazioa

Gernika- Lumo
CALZADA
EGOITZA
FUNDAZIOA

Pandemiako hilabete zail hauen ondoren, zein egoeratan zagoze orain?

Ondo gagoz. Egoiliarren artean ez dogu COVID-19 kasurik izan. Beharrezko prebentzio-neurri guztiak mantentzen doguz. Egoitza barruko biziak ahalik eta normalizatuena da. Askok saiatzen gara eta asko zaintzen dogu egoiliarrek harreman-eremu osoa ondo zainduta izan dezaten, eta familiek segurtasunez eta hurbiltasunez erlazionatu ahal izateko lan egiten dogu.

Denbora horretan guztian, zelan kudeatu dozue egoera?

Zalantza barik, ahalegin handia egin behar izan dogu egoerak eskatzen dabezen beharrei erantzuteko. Pandemia horren hasieratik, Prebentzio Plan bat garatu gendun birusa egoitzan sar ez eiten, eta Kontingentzia Plan bat, kutsatzea ahalik eta gehien minimizatu ahal izateko. Bestalde, Bizikidetza Plan bat egin dogu, egoitzaren barruan ahalik eta bizimodu normalizatuena egin ahal izateko, behar diran prebentzio-neurri guztiekaz.

Kudeaketa hori egiteko erabili doguzun funtsezko tresnen artean honako hauek dagoz: langileen konpromisoa, ahalegin ekonomikoa (gastuak ez dira murriztu behar giza baliabideetan zein baliabide materialetan), langileentzako prestakuntza eta egoiliarrentzako informazioa, eta, azkenik, gardentasuna eta etengabe-ko komunikazioa familiekaz eta langileekaz.

Bizi izandako esperientziagaz, beharrezkoa ikusten dozue kudeaketa-ereduan aldaketak egitea? Zeintzuk?

Urteak daramatzagu zentroa pertsona eta egoiliar bakoitzaren egoeran oinarritutako arreta integrala izango dan eredu bat lantzen.

Argi daukogu kudeaketak iraunkorra izan behar dauela eta horrek gizarte osoaren apustua eskatzen dauela, geure adinekoak beren behar guztietan artatuta egoteko konpromisoagaz. Eta gizarteak asko zor deuselako kontzientziagaz.

Guretzat egoitza euren etxea da, ez da ospitale bat, nahiz eta, lo-

gikoa danez, geure adineko guztien beharrei erantzuteko adina osasun-langile izan behar doguzen. Bere etxea izan daiten egiten dogu lan egunero, eta horretara bideratzen dogu gure kudeaketa guztia. Horrela egiten gendun pandemiaren aurretik, pandemiaren garaian eta horrela egiten jarraitu gura dogu.

Denbora horretan egoera tragikoak bizi izan dozue, baina suposatzen dogu zirrargarri eta atsegingarri batzuk be izango dozuzela...

Egoeraren gogortasunaren barruan, une atseginak eta erakusgarri handiko uneak bizi izan doguz. Etxe honetan bizi diran zenbat pertsonak eskertu deuskue beraiekaz "konfinatu" izana eta egun batzuetan gure familia utzi izana.

Askok dira geure adinekoek irakatsi deuskuezen irakaspenak, eta oraindik be irakasten deuskue: oraina itxaropenez bizitzen, eskaintzen jakezen keinu txikiak eskertzen, zailtasunak hartzen, egunerokoari balioa emoten, eta hori askotan ez dogu kontzienteki bizi.

Une honetan, zein da bizi izan dozenari eta Bizkaiko egoitzen egoerari buruzko zuen balorazioa? Zelan baloratzen dozuz Bizkaiko Foru Aldundiaren EtxeTIC proposamena, etxeko zaintzak ahalik eta denbora gehien bultzatzeko neurriak ezartzeari buruzkoa?

Ez da eztabaidagarria birus hori adinekoekaz grinatu dala, eta, beraz, egoitzak bereziki kaltetuak izan gara, baina azpimarratzekoa da egoitzetako erakunde publikoek, kudeatzaileek eta langileek konpromiso handia hartu dabela geure adinekoak babesteko.

Bakoitzaren etxean bizi ahal izatea da naturala eta danok gura doguna. Etxeko zaintzak behar besteko lanbide-prestakuntza daukeen pertsonak egiten badabez, oso egokia iruditzen jaku apustua. Baina egoitza baten zerbitzuaren osagarri ikusten dogu.

Foru IGURCO EGOITZA



Argazkia: Igurco egoitza

Pandemiako hilabete zail hauen ondoren, zein egoeratan zagoze orain?

Adi gagoz, jakinda, prebentzio-neurri asko aplikatzen badoguz be, birusa edozein unetan sar daitekeela atetik, baina hala iza-nezkerok, hobeto prestatuta gagoz hartzeko eta aurre egiteko.

Denbora horretan guztian, zelan kudeatu dozue egoera?

Ziurgabetasun handiz eta ahalik eta ondoen. Egoera egunero-egunero aztertzea, lantaldeak egunero bilerak egitea eta lan-protokolo barriak sortzea, zentroko langile eta egoiliar guztiei eragin deutseenak. Bajak aurreikusten dabezen langileen ratioa handitzea, garbiketa indartzea, egonaldiak berregituratzea eta egokitzea, ondo ez genekien egoera barrira egokitzeko, eta gure egoiliarrei maitasuna eta segurtasuna helaraztea, senideekiko komunikazioa errazteko; izan be, familientzat oso garrantzitsua da egoiliarra ondo dagoela jakitea eta baita egoiliarrentzat be familia ondo dagoela jakitea. Eta, jakina, eguneroko komunikazio gardena egoiliar bakoitzaren familiagaz. Beste lan garrantzitsu bat langileen egoera emozionala kudeatzea izan da, birusa etxera eraman ahal izatearen bildurra kudeatzeko. Esan behar dot zentroko lantalde osoak, edozein lanbide-kategoriatako langileek, benetako profesional gisa jokatu dabela, egoiliarren alde dana emonez.

Bizi izandako esperientziagaz, beharrezkoa ikusten dozue kudeaketa-ereduan aldaketak egitea? Zeintzuk?

Urteak dira gure enpresak prozesuka lan egiten dauela, laguntza-protokoloekaz eta egoera kritikoetarako erreferentziatzeko figurekaz, eta kudeaketa-eredu horrek egoera hau eramaten lagundu deusku.

Denbora horretan egoera tragikoak bizi izan dozuez, baina suposatzen dogu zirrargarri eta atsegingarri batzuk be izango dozuzela...

Egoera tragikoak aipatzerakoan, COVID-19k eragindako heriotzei buruz ari bazara, Jainkoari esker ez jaku egokitu pandemia osoan

bizitzea. Orain arte ez dogu kasu positiborik izan, ez langileena, ez egoiliarrena, baina pandemiaren hasieran egoera hunkigarriak bizi izan doguz seme-alaben eta gurasoen artean, bisitak debekatuta egoezenez eta zalantza eta bildurra geure egunerokoa zanean. Egoiliar batzuek ez eben ulertzen zergatik ez zan etortzen familia gauetik goizera, eta, egunero telefonoz edo bideo-dei bidez haiekaz harremanetan jarri arren, kosta egin jake ulertzea egoera aldatu egin dala guztientzat. Oso adineko jendea da eta eurentzako garrantzitsuena familia da, denboraren kontzeptua desberdina da haientzat.

Atseginak?? Askok, kutsatu barik eta denak ondo eta lasai dagozela ikusita gaintzen dozun egun bakoitza da pandemia garai hauetan atseginena. Familien esker ona be laguntzen ari jaku egoera hau eramaten, zorritarrez luzatu egingo baita.

Une honetan, zein da bizi izan dozuenari eta Bizkaiko egoitzen egoerari buruzko zuen balorazioa? Zelan baloratzen dozue Bizkaiko Foru Aldundiaren EtxeTIC proposamena, etxeko zaintzak ahalik eta denbora gehien bultzatzeko neurriak ezartzeari buruzkoa?

Bizi izan doguna barria da guztientzat. Ez geunden prestatuta, ez fisikoki, ez emozionalki. Nik ezagutzen dodazen Bizkaiko egoitzetan % 200ean lan egin dogu eta egiten jarraitzen dogu. Uste dot oso ondo ari garela. Egunero eta astero mota guztietako txostenak bidaltzen deusaguz Aldundiari, langileen eta egoiliarren kasu positiboei buruz, familien bisitei buruz, garbiketari eta desinfektzioari buruz, materialaren stockari buruz, bisita-protokoloei buruz, jarduteko protokoloei buruz, etab., eta aldizkako ikuskapenak doguz. Uste dot datu hoiek guztiekaz egoitzen gaia oso kontrolatuta egon behar dala.

EtxeTIC proposamenari dagokionez, perfektua da, baldin eta etxean zaintza hoiek egiteko beharrezkoa dan figura profesionala eta kualifikatua badago. Etxeko zaintzak egoitza-zentro edo eguneko zentro bateko zaintzak bezain garrantzitsuak dira. Zentroetan etxeko zaintza hoietarako langile kualifikatuak badoguz, hau be egon beharko litzateke etxeko zaintzan.



Argazkia: Olabe egotetxea

Muxika OLABE EGOTETXEA

Pandemiako hilabete zail hauen ondoren, zein egoeratan zagoze orain?

Arau-aldaketa etengabeetako larritasun eta ziurgabetasun handiko hilabeteak igaro ondoren, ziur gagoz gaur egun hobeto prestatuta gagozela COVID-19tik eratorritako egoerei aurre egiteko, orain arte egindako arreta- eta zaintza-ildoari jarraituaz. Ondorioz, prebentzio-protokolo bat onartu dogu, birusak gure egoitzan izan daikeezan ondorioak saihesteko edo, hala badagokio, minimizatzen.

Denbora horretan guztian, zelan kudeatu dozue egoera?

Osakidetzak eta Aldundiak markatutako jarraibideei jarraitu deusagu uneoro, sen ona eta sektorean dogun esperientzia zabala aplikatuz. Pandemiaren ondorioz, langileak eta egoiliarrak bizi izandako egoera larriaz jabetu dira, baita egindako ahalegin handiaz eta egiten jarraitu beharraz be.

Bizi izandako esperientziagaz, beharrezkoa ikusten dozue kudeaketa-ereduan aldaketak egitea? Zeintzuk?

Aldez aurretik, zehaztu behar da egoitzak ez direla inola be ospitaleak. Gure zeregina da egoiliar bakoitzari arreta eta zaintza onena emotea egunero, ahalik eta bizi-kalitate onena izan daiezan. Premisa hori abiapuntutzat hartuta, beharrezkoa da egoitzek, BFAK eta Osakidetzak gure ahalegin guztiak bateratzea egoiliarren helburuak beteko dabezen arreta-eredu bat bilatzeko, bertiere sektore honetan inplikaturako gainerako alderdienak alde batera utzi barik.

Denbora horretan egoera tragikoak bizi izan dozuez, baina suposatzen dogu zirrargarri eta atsegingarri batzuk be izango dozuzela...

Gure egoitzan ez da COVID-19 kasurik izan. Beraz, bizi izandako egoerak tragikoak baino gehiago, azkenean konpondu ahal izan doguzen tentsio uneetan zentratu dira, etorkizunean be konpondu ahal izango doguzelakoan.

Familien erantzuna oso pozgarria izan da, oso positiboki baloratu dabelako familia handi hori osatzen daben langile bakoitzak egindako lana.

Une honetan, zein da bizi izan dozuenari eta Bizkaiko egoitzen egoerari buruzko zuen balorazioa? Zelan baloratzen dozuz Bizkaiko Foru Aldundiaren EtxeTIC proposamena, etxeko zain-tzak ahalik eta denbora gehien bultzatzeko neurriak ezartzeari buruzkoa?

Hasiera batean, pandemia horrek beldurra eta larritasuna eragin dauz ezezagunaren aurrean, protokoloen eta foru-aginduen etengabeko aldaketekaz, baina egoera horri aurre egin ahal izateak indartsuago egin gaitu. Egoitzetan jasandako egoerak kezka handia sortu dau familien artean, baina uste dogu guztiok geure etxean mantendu gura dogun arren hori ez dala beti posible, horretarako baldintza egokiak ez dagozelako. Hau da, egoiliar bati edo besteari bete behar jakezan premien kasuistika ez da beti bardina izaten, eta, batzuetan, beharrezkoa izaten da profesional sanitario espezializatuen arreta, bai eta pertsona horren garapenerako eta bizi-kalidaderako espazio egokiak be, etxeetan beti gertatzen ez direnak.

LGK LOGÍSTICA

GARRAIOA, BILTEGIATZE, BANAKETA...

Txaporta industrialdea, 2-1
48300 Gernika - Lumo (Bizkaia)

Tel. 94 625 03 85
Tel. 94 625 75 40
e-mail: lgk@lgk.es

EUSKAL SOUVENIRS

Andra Mari kalea, z/g
48300 Gernika-Lumo (Bizkaia)
94 625 19 30
www.euskalsouvenirs.com

@euskalsouvenirs

Gernika-Lumo TORREZURI EGOITZA



Argazkia: Torrezuri egoitza

Pandemiako hilabete zail hauen ondoren, zein egoeratan zagoze orain?

Hobeto gagoz, hobeto ezagutzen dogu gaixotasunaren fisiopatologia, transmisioarena, baliabide gehiago eta kontingentzia-planak doguz, NBE (Norbera babesteko ekipamenduak), test azkarrak... Baina kolektibo ahulena zaintzen lan egiteko presioa-gaz jarraitzen dogu. Gainera, komunikabideek etengabe atera gaitue, eta hori oso txarto bizi izan dogu, presio handia dogu, birusaren giza hesia izatearen presio etengabea. Orain administrazio publikoen laguntza pixka bat handiagoa dogu, eta txertoa noiz iritsiko zain gagoz, lasaitu barik.

Denbora horretan guztian, zelan kudeatu dozue egoera?

Ahal izan dogun bezala. Hasieran, baliabide gutxigaz, guk A griparen garaiko NBEak genduzan, eta urtarrilaren hasieran beste batzuk hartu genduzelako; baina maskara bera erabili dogu hiru egunera arte, eta gero pantailak iritsi ziren, Maier eta Barrutiaren aurpegi-babesleak, eta asko eskertu gendun. Martxoaren 13rako dena itxi zan, baina 14rako gure kontingentzia-plana eginda geneukan. Espazioak banatu genduzen, egoiliar bakoitzak mahai batean jaten eban, baina konpondu egin ginen. Torrezurin denok aldatu doguz gure bizi-ohiturak, kutsatzea saihesteko. Eta neurriak indartzen eta egokitzen ari gara.

Bizi izandako esperientziagaz, beharrezkoa ikusten dozue kudeaketa-ereduan aldaketak egitea? Zeintzuk?

Nire ustez, zubiak, lotura soziosanitarioak ez dau funtzionatzen. Pandemiaren ondorioz funtzionatzen hasi da, baina ez dago komunikaziorik. Orain pertsona batek erakundeen arteko lotura egiten dau, baina oraindik ez dabil ondo. Konfinamenduan zehar, ziurtzat jo zan kutsatutako adineko guztiak kasu larriak izango zirala, adinaren araberako diskriminazioa egon zan, eta horretarako adierazle gehiago egon behar dira. Ziur asko, gaixotasuna gainditu leikien adineko pertsonak zendu ziran. Eta zergatik gertatu da

hori? Erabakiak hartzeko oinarria pertsonak ez diran herrialde batean gagozelako. Pertsona ardatz daukeen erabakiak behar doguz, profesionalengan konfiantza handiagoa izango dauen eredu humanista.

Denbora horretan egoera tragikoak bizi izan dozuez, baina suposatzen dogu zirrargarri eta atsegingarri batzuk be izango dozuzela...

Tentsio handiko egoerak izan doguz, gure egoiliarrek triste egoazan, baten batek jateari utzi eutson, bakarrik sentitzen zalako. Tragikoa da zaharrak negarrez ikustea, senideak ezin dabezelako ikusi. Oso polita izan da ikustea zelan indartu garen talde lez, oso integratuta lan egiten dogu. Politikak izan dira, halaber, konfinamenduan egin doguzen meriendak eta jaiak, Ertzaintzak patruila-autoak atera eta sirenak jarri euskuezanean, txaloka...

Une honetan, zein da bizi izan dozuenari eta Bizkaiko egoitzen egoerari buruzko zuen balorazioa? Zelan baloratzen dozue Bizkaiko Foru Aldundiaren EtxeTIC proposamena, etxeko zaintzak ahalik eta denbora gehien bultzatzeko neurriak ezartzeari buruzkoa?

Oso gogorra izan da. Txarto pasatzen ari gara egoitzak estigmatizatu direlako, guk ez dogu positiborik izan COVID-19n. Komunikabideetan aterateak estigmatizatu egiten dau eta beharrezkoa ez dan estresa sortzen dau. COVID kasu bat badago, familiek eta zaintzaileek jakin behar dabe, eta kito.

Etxeko zainketei dagokienez, ni jendea gura dauen bezala bizi eta zahartzearen alde nago, baina justizia sozialeko baldintzetan. Etxean laguntza teknologiko guztiekaz eta zaintzaile bategaz zahartzea bada planteamendua, ondo iruditzen jat. Baina pertsonak 24 orduko arreta behar badau, baldintza duinekaz joan behar dau. Guk bete beharreko lan-baldintza batzuk betetzen doguz, eta hori bera eskatzen dot etxean mendekotasuna izateko. Mendekotasuna handia denean, beste baliabide batzuk behar dira.



Argazkia: Zelaiondo egoitza

Busturia ZELAIONDO EGOITZA

Pandemiako hilabete zail hauen ondoren, zein egoeratan zagoze orain?

Egoera zaila da, baina kontrolpean dago, esperientzia, baliabideak eta ezagutzagaz, eta diziplinarteko talde handi bat be badaukagu, krisia behar bezala kudeatzeko.

Denbora horretan guztian, zelan kudeatu dozue egoera?

Modu irmoan, egoerata egokituta, egunero egoera aztertuz, eta diziplinarteko taldearen ikuspegi desberdinetatik, ekintzarik onenak aukeratuz, betiere egoitzan bizi diran pertsona guztien beharrak baloratuz, haien familiak ahaztu barik.

Bizi izandako esperientziagaz, beharrezkoa ikusten dozue kudeaketa-ereduan aldaketak egitea? Zeintzuk?

Interesgarria litzake aditu guztien gaitasunak iraultzea eta egoitzetan txertatzea, krisiaren kudeaketaren ikuspegi orokorragoa izateko.

Denbora horretan egoera tragikoak bizi izan dozuez, baina suposatzen dogu zirrargarri eta atsegingarri batzuk be izango dozuzela...

Unerik zailenetan krisiari taldean, elkarregaz, aurre egitea pozgarriena izan da, baita familien eta lagunen babes-mezuak be.

Une honetan, zein da bizi izan dozuenari eta Bizkaiko egoitzen egoerari buruzko zuen balorazioa? Zelan baloratzen dozuz Bizkaiko Foru Aldundiaren EtxeTIC proposamena, etxeko zaintzak ahalik eta denbora gehien bultzatzeko neurriak ezartzeari buruzkoa?

Egoera zaila da, baina uste dogu egoitzan bizi diran pertsonen arreta bikaina dala, haien behar guztiak bete daikeguzela, eta oso pozik dagozela, egunegun jakinarazten deuskuen bezala. EtxeTIC proposamena modu positiboan baloratzen dogu, baldin eta arreta bermatuta badago.

ELIKADURA SEGURITASUNA ETA INGURUMEN OSASUNA

Laborategia

Esperientzia eta espezializazioa Ur eta Elikagaien Analisirako Laborategi Mikrobiologiko gisa, hala nola, barneko airearena.

Aholkularitza

Aurreratutako irtenbide teknologikoen Aholkularitza, Diseinua, Aplikazio eta Kontrola.

Prestakuntza

Elikagaien eta Ingurumen arloetan prestakuntza eskaintzen dugu, pertsonak eurem lanpostuetarako behar duten ezagutza-maila handitu dezaten.



**PREVENCIÓN
COVID 19**

Biotalde COVID-19aren aurkako prebentzio planak eskaintzen ditu

Polígono Industrial San Isidro II
Idorsola, 15 – Dpto 3.2 – 48160 Derio



Bizkaiak egoitza-eredu "gizatiarragoen" aldeko apustua egin dau

Gizarte-zerbitzuak modernizatzea Bizkaiko Foru Aldundiaren lehentasunezko ardatza da. Horrela, adinekoak zaintzeko beste eredu baterako trantsizioa lortzeko plana abian jarri dau. Foru Erakundeak, bizi-itxaropenaren gehikuntza progresiboaren eta gaixotasunen kronifikazioaren aurrean, etxeko iraupen luzeko zainketen aldeko apustua egin dau, egoitza-eredu gizatiarragoetara aldatuz, bizikidetzatxikiagoekaz.

20 biztanleko bizikidetzatxiki-unitate bihurtu beharko da, banakako logelekaz, objektu pertsonalekaz... Kudeaketa-eredu garestiago bat, baina etxe baten antz handiagoa daukone.

Erakundeen arteko koordinazioa

Testuinguru horretan, COVID-19ak lehen lerroan jarri dauz adinekoen egoitzak, eta indarguneak eta ahulguneak agerian jarri dauz. Eusko Jaurlaritzak Osasun Sailean zuzendaritza soziosanitario barrira sortzea erabaki dau, adinekoen egoitzetan koronabirusaren aurkako ekintza instituzionala koordinatzeko. Jose Antonio de la



"EtxeTIC" izeneko eredu da, Bizkaia osora zabal daitekeena. Helburua da bizimodu independentea sustatzea eta egoitzetara iristea atzeratzea, teknologia barriei esker geure adinekoen urrutiko kontrola eginez. Erronka horrek neurri barriak eskatzen dauz, hala nola etxean laguntzea eta zaintzea teknologian oinarrituta, etengabeko monitorizazioagaz eta etxetik gertu dagoen erreferentziatzko zentro batean zerbitzu espezializatuekaz konbinatuta.

Bizkaiko Foru Aldundiak lortu gura dauen kudeaketa-eredu barri horrek, mendekotasunari arreta emoteko zerbitzuen arduraduna dan aldetik, egoitza-eredu "gizatiarrago" bat be badakar. Bizikidetzatxiki-talde txikiagoak sortzea, komunitateari irekiak eta belau-naldien arteko harremanak bultzatzen dabezenak; horrela dira etorkizuneko egoitzak. Erreferentziatzko eskualde-zentroetako laguntza mediko espezializatuak daukezen 10 eta 20 pertsona bitarteko etxeko unitateak. Horretarako, foru-erakundeak egoitza-sarea eraldatu behar dau. 100 egoiliar daukon zentro bat

Rica psikiatraren ardura izango da, bere karrera Osakidetzan egin dauena eta 2007ra arte Bermeoko Ospitale psikiatrikoko zuzendari nagusia izan dan profesionala.

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza, Bardintasun eta Enplegu Sailak be elkarregaz ari dira lanean prestakuntza-programa bat diseinatzeko, pertsonen arretarako protokoloen ezarpena hobetzeko eta pertsona hoiek artatzen dabezen langileei garapen profesionala ahalbidetzeko.

Busturialdea-Urdaibai



#danonarteian

LORTU BEHAR DOGU
INOR ATZEAN ITXI BARIK



Visit Urdaibai
© bai Nueva Europa



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral



Arrolagune

Arrolako Oppidum-aren
Interpretazio Zentroa

**SARRERA
doan!**

Bisita egunak

■ Zabalik

AZAROA

A	A	A	O	O	L	I
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23 ³⁰	24	25	26	27	28	29

ABENDUA

A	A	A	O	O	L	I
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

**Ba al dakizu zelan bizi ginen
Urdaibain duela 2300 urte?**

Zatoz ARROLAGUNEra!

DESCARGATU WEBGUNEAN ZURE SARRERA

ORDUTEGIA 10:00etatik 14:00etara

Loiola Auzoa, 4 48383 Arratzu (Bizkaia) Koordinatuak 43°18'1" N 2°38'27"W
arrolagune@visiturdaibai.com 634 24 37 62

[www.https://www.visiturdaibai.com/arrolagune-centro-de-interpretacion](https://www.visiturdaibai.com/arrolagune-centro-de-interpretacion)

KALEROAK,

landa munduko "enpresa eraldatzaileak"

Epidemiak gure historiaren parte dira, eta horiek gainditzeko borrokak ezagutza ekarri dau. Gaur egungo egoera sanitarioan, baserritarren munduari lotutako labe txikiak ziran karobien tradizioa ekarri gura izan dogu iraganetik. Baserritarren munduari lotutako labe txikiak ziran hauek, non kareharria kare bihurtzen zan, nekazal gizarte tradizionalen funtsezko substantzia, ongarrri, fungizida edo korten desinfektatzaile lez erabiltzen zana. Antxinan antiseptiko indartsu lez eta izurrite handiak geldiarazteko erabiltzeak oso esangura berezia hartzen dau gaur egun.



Erromatarren garaian, karea erabiltzen zan Euskadin eraikuntza-material lez. Honen erabilera, bereziki, XVII. mendearen amaieran hedatu zan, artoa eta indaba sartu ziranean. Kareak hobeto betetzen ebezan uzarako itxaropenak satsak baino. Kareak lurra kapilarizatzea, ura sartzea, landareen sustraiek elikagaiak azkar xurgatzea eta intsektu kaltegarriak ezabatzea ahalbidetzen eban. Horregatik, kareharria kare bihurtzen eban karobi edo labeak geure baserrietako bizitzan falta ezin zeitekezan elementuak ziran.

Urdaibain oindino be bizirik diraute labe apal honeek, sasien artean ezkutatuta gehienak. Labe honeetako batzuk berreskuratatu egin dira, eta tradizioaren eta antxinako bizimoduen

ezagutza gogora ekartzeko eta transmititzeko be jarri dira martxan. Nabarmentzekoa da Bedaronako (XIX. mendea) Etxebarri baserriko karobia, 4,10 metroko sakonerako lurmalkar batean kokatua. 2012an zaharberritu eban auzolanen, lehen egiten zan lez, eta uztailen jarri eban martxan. Urte bereko abuztuan karea lortu zan, jai giroan, trikitixa eta hamaiketako lagun, tradizioa gogora ekarriz. Baina badira beste asko be, adibidez, Arratzun, Urberuagan (Forua), Kananlan, Metxikas (Errigoiti) eta Forua arteko Kortabille baserrian, Gernika-Lumon, Sarrikolea baserrian (Kortezubi), Zugastietan (Muxika), eta Busturian Larragon edo Bollegi baserrian, azken hau 2011n berreskuratua.

Eraldatze-industriaren hastapenak

Karobiak kareharrizko azaleratze batetik eta auzo-bideetatik geru egon ohi ziran, lehengaia, harria eta erregeaia, egurra, batez be haritzezko egurra, gaztainondoa eta pagoa, txilarra eta sustraiak erraz garraiatzeko. "Azpiegitura" 4 eta 6 metro bitarteko sako-nerako labe zilindriko bat zan. Karea lortzeko prozesua, naturan zuzenean existitzen ez dana, harria kiskaltzea zan.

Karea lortzea lan neketsua zan. Lehenengo, erregeietarako behar adina egur eta adar moztu, bildu eta lehortzen utzi behar zan. Gero, kareharria eta erregeaia karobiraino eraman, non harriak borraz puskatzen ziran, sagar baten antzeko tamainara iritsi arte. Egurra eta harria bata bestearen gainean pilatzen ziran, eta su emoten zan behetik. 7-15 egunez sua mantendu behar zan, gau eta egun egurra gehitzen jarraituaz. Lan neketsu honek, sarritan, familia batzuen laguntza behar eban, horregatik, kasu askotan, karea auzolanean egiten zan. Lortutako karea proportzio berean banatzen zan auzotarren artean, eta ohikoa zan be festa bat egi-tea lanak amaitzean.

Oro har, karobiak apirilaren amaieran edo maiatzaren hasieran pizten ziran, eta urtean hainbat galda egosten ziran labore bakoitzaren arabera. Baina danak ez ziran aldi berean pizten, ezta urtero be, kare beharren arabera. Karea baserri bakoitzera eramaten zanean, hura ureztatu egiten zan hautsa kare bizi bihurtzeko, eta lurtean zabaltzen zan ongarrizko. Gordetzeko, karobia estaltzen zan, euriak eta hezetasunak honda ez eien.

Epidemien aurkako karea

Kaltzio oxido honen erabilera anitzak eta askotarikoak dira. Uragaz eta lurragaz nahastuz, hormak eraikitze beharrezkoa zan morteroa lortzen zan, eta uragaz konbinatuz, baserriak zuritzeko karesne bezala erabiltzen zan. Nekazaritzan, ortuak eta fruta-arbolak ongarrizko eta laborantzian intsektuak kentzeko erabiltzen zan.

Abeltzaintzan, animalien zauri infektatuak sendatzeko edo korten desinfektatzaile lez erabiltzen zan. Larrugintzan larrua kentzeko erabiltzen zan. Eta beharra egoanean, kare bizia erabili zan gorpuak estaltzeko eta, horrela, kutsatzeak saihesteko. Medikuntzan, kare-ura agintzen zan amigdalitisaren, faringitisaren edo larruazaleko gaixotasunen aurka. Epidemia geldiarazteko, karea funtsezkoa izan zan. Antiseptiko indartsu lez eta izurri bubonikoaren, tifusaren, kolera morboa edo sukar horiaren aurkako freno terapeutiko lez erabili zan, beste gaitz batzuen artean. Karea gogor borrokatu zan "etsai ikusezina" deritzonaren, bakterioen eta birusen aurka, aurre egiteko aukera bakarra zan garaian. Izan be, gaur egun zientifikoki frogatu da kare oxidoa eraginkorra dala hainbat erabilera antiseptikotan.

Halanda be, gaur egun ezer gutxi geratzen da karea lortzen zan labe haietatik. Euskal nekazaritzarako garai batean funtsezkoa ziran elementu protoindustrial horietako gehienak ez dira erabiltzen, eta askotan hondatuta dagoz. Bere gainbehera XX. mendean iritsi zan, ongari kimikoak eta zementua iritsi ziranean. Baserrietatik lantegietara pixkanaka joateak be eragina izan eban behin betiko uzteko.

Antxinako kare-labe hoiak berreskuratzea geure herrietako ondare historiko-kulturalaren memoriaren aldeko apustua da, arkeologia industrialaren aldekoa, geure mundu baserritarra eta pertsonak bizitza babesteko daukeen gaitasuna balioesten dauz. Gaur egun, COVID 19 pandemiaren barruan gagozela hauxe bera bereziki garrantzitsua da.

Ba al zenekien?

- Gaztelaniaz "*A cal y canto*" esamoldea, ondo itxita dagoen zerbait aipatzeko, ateak eta leihoak estaltzeko ohitura zahar batetik dator, jabea ez egoanean inor ez sartzeko. Hartz (errekarriak) eta karez egindako ore batez egiten zan horma.
- Karearen erabilera:
 - Ortuak eta fruta-arbolak ongarriztea
 - Korten desinfektatzailea
 - Etxeak eta baserriak karesnez zuritzea (karea eta ura)
 - Eraikuntzarako morteroa
 - Fungizida ortuetan
 - Enborrak intsektuen aurka zuritzea
 - Abereen zauriak sendatzea
 - Tifus edota kolera bezalako epidemien aurkako desinfektatzailea
 - Arrautzen kontserbagarria (karea eta ura)



Bedaronako Etxebarri baserriko karobia martxoan jarri zan eguna(2012)

HUMBOLDT, EUSKALDUNEN ADISKIDEA

Europako Herrien Parkeak (1991) Euskadiko oinarrizko lau ekosistemetako zuhaitz eta zuhaixka ugari biltzen dauz, eta, inguru hurbilean, izen handiko eskultoreen lanak eskaintzen dauz, Eduardo Txillida eta Henry Moorerenak, besteak beste. Bere barnean, alboko pasealeku lasaietako batean, parkea eta Euskal Herriko Museoaren lorategiak banatzen dabezen hesitik gertu, Wilhelm von Humboldtten bustoa ikus daikegu, Geeruder Micheli (1999) eskultorearen lana.



Wilhelm von Humboldték Europako herrien parkean egotea ez da kasualitatea. Humboldtentzat, euskal herria zelta aurreko Iberiako jatorrizko herrien hizkuntza-ordezkaririk zaharrena zan, *"Euskara Europako hizkuntzarik zaharrena da"*. Euskararen mireslea izan zan, eta honako esaldi hauek eskaini eutsozan: *"Prestakuntza perfektuko hizkuntzetako bat da, harrigarria bere indarragatik, bere hitzen egituragatik, adierazpenaren laburtasun eta ausardiagatik"*.

Wilhelm von Humboldt bere herrialdeko kulturen eragin handiena eta iraunkorrena izan eban intelektual alemaniarretako bat izan zan. Bere obra bere anaia Alexander von Humboldt geografoaren obragaz lotuta badago, bien ondarea kultura unibertsalean dago, indarrez.

Alexander, batez be, jakintzaren mugak zabaltzen aritu zan naturari eta geografiari buruzko ikasketekaz, eta Wilhelm, barriz, Berlingo unibertsitate zaharrenaren sortzailea izan zan 1810ean. Eredu barriztaile bat ezartzeko asmoz, letrei ekin eutsen, bere lanak hezkuntzaren arazoetara, teoria politikora, hizkuntzen azterketa analitikora, historiaren filosofiara, literaturara eta arteetara bideratuz. Hezkuntza-sistemaren erreforman eta Prusiako diplomazian aktiboki lan egiteaz gain.

Wilhelmek birritan bisitatu eban Euskal Herria, 1799an lehen aldiz, emaztea eta bi seme-alabekaz eta Gropius margolariagaz batera, Madrilerako bidaia zabalago baten testuinguruan.

Bigarren bidaia, 1801ekoa, hizkuntzak eta euskal biztanleek lehen bidaian sortu eutsen jakin-minaren eta sentazioen emaitza da, eta Euskal Herrirako helmuga berariaz ezarrita dago helburutzat. Humboldték bidaia hau prestatzen dau euskaldunei buruzko informazioa bilduz, eta bere ibilbide proiektua bizi diran lurralde guztiak ezagutzea da.

Behatzaile handia, kultura, artegatsua eta euskal kultura eta gizarteagaz txunditua, bere bidaietan, euskaldunak zelakoak ginan eta antolatzen ginan moduari buruzko testigantza baliotsuak jaso eta komentatu ebezan.

Humboldtengan euskara piztu eban interesa funtsezko faktorea izan zan bidaian bisitatu ebezan Euskal Herriko herrietan aurkitu eban gizartea eta kultura modu integratuan ulertzeko. Gure bidaiaria hizkuntzaren eta historiaren filosofo bat izan zan, eta berak esan eban bezala: *"Hizkuntza bakoitzean dago idatzita mundua ikusteko modu berezi bat"*. Bere gaitasunen batuketak eta historialari, filosofo eta hizkuntzalari lez izan eban prestakuntza



Europako Herrien Parkea, Gernika-Lumo

sendoak testigantza baliotsu bihurtzen dabe bere narrazioa, eta merezi dau ezagutzea, zelakoak ginan eta zelan ikusi gintuan jakiteko, duela bi mende baino gehiago. Euskarari buruzko bere lanak bere bi lanetan islatu ziran. (*)

Bizkaian barrena, Lemoatik iritsiko da Humboldt Bilbora, eta Barakaldotik Somorrostroko San Juanera joango da, gaur egungo Muskizera. Santurtzi eta Portugaletetik jarraitzen dau, itsasadarra Algortaraino zeharkatzen dau eta handik Plentziara doa. Bakio, Bermeo eta Mundaka dira Gernika-Lumorako bidean mugari nagusiak. Gauegiz Arteagako bidetik, Ereño eta Nabarnizeraino igotzen da, Lekeitiara iristeko eta Bizkaitik Ondarroatik ateratzeko.

Gernika-Lumon egindako egonaldiaren testigantza emon deusku: *"Ondo eraikia eta garbia. Lautada eder landua"*; beren gizarte, ohitura eta erakundeei buruz: *"Horrela biltzen dira gaur egun arte Bizkaiko diputatuak Gernikako Arbolaren azpian, eta gaur egun han ez badauke beren deliberamenduek, ondoan eraikitako kaperan baizik, ordea, aire zabalean errenditzen dabez beren botereak;*

eta, edozelan be, solemnitarearen arbolaren beraren azpian hasten dira".

Wilhelm von Humboldttek bere bidaiaz utzi euskuzan lekukotasunak, euskarari buruzko ikerketa linguistiko eta filosofikoak eta, identitate eta kultura liluragarri lez, *"euskalduntasuna"*ren bere pertzepzio aparta meritu nahikoak dira jatorrian Gernika-Lumotik hain urrun dagoen eta bere pentsamendutik hurbil dagoen prusiar jakintsu honek Europako Herrien Parkean bere presentzia, aintzatespena eta txoko lasaia izan daien. Ondo merezita da be bere izenaren azpian dagoen esaldia, bere bustoaren idulkian irakurtzen dan: "EUSKALDUNEN ADISKIDEA".

(*) *"Berichtigungen und Zusätze zu Adelungs Mithridates über die kantabrische oder baskische Sprache"* Adelung-eko Mithridates-eri egindako zuzenketak eta osagarriak kantabriera edo euskararen gainekoak, 1817.

"Prüfung der Untersuchungen über die Urbewohner Hispaniens mittelst der Vaskischen Sprache" Hispaniako antxinako bizilagunen ikerketa euskararen bitartez, 1821.

Ezagutu Gauegiz Arteaga pausoz pauso



INDABA

osasuntsua,
zaporetsua eta
Urdaibain...
kalitatezkoa,
baina urria



Lekale hau, goxoa eta leuna, ezagutzen dan landutako produkturik antxinakoenetako bat da. Bere jatorria Mexikoko hegoaldean dago, K.a. 7000. urtean, eta Erdialdeko Amerikako zibilizazioek kontinente osoan zehar hedatu eban, Kristobal Kolonek Europa zaharrean sartu eban arte. Urdaibain indaba gorria landatzen da baserrietako ortuetan duela 300 urte baino gehiagotik, gure mikroklimak lagunduta, hezetasunagaz eta tenperatura leunekaz. Geure sukaldeetan tradizio handia daukon produktu hau, bere garaian jatorri-deitura izan eban, eta orain ekoizle txikien ahaleginari esker mantentzen saiatzen da.

Maiatzean ereiten da, eta irailean eta urrian biltzen da. Indabak *Phaseolus* generoko landare lekadunetan hazten diren leketatik ateratzen diren hazi heldu eta lehorrak dira. Gure indaba, "Gernikako Indaba", tamaina altukoa da, hosto zabalekaz eta tonu berde ilunagaz. Alea obalatuia edo biribildua da, granate koloreko tamaina ertainetik handira, eta orban argiak dauko. Udazkeneko hilabeteetan gure nekazal-azoketako protagonista nagusia da, eta bere publiko leialak irrikaz itxaroten deutso urdaila berotzen deutson indaba plater on bati hotzaren etorreragaz.

Artoa eta kalabaza bezala, indaba ezagutzen dan produktu landu zaharrenetako bat da. Gaur egun mundu osoan lantzen da, klima hotz zein epeletan aurrera egiten baitu. Gure eskualdera duela 300 urte baino gehiago iritsi zan, eta antxina indabek, dilistak eta garbantzuak ez bezala, onarpen txikia izan baeben be, Urdaibain beti izan dira kalitate eta tradizio handikoak.

Hasieratik, baserrietan oso garrantzitsua izan da indabaren kontsumoa; baserritarren elikadura-dietaren oinarritzko produktua zan, eta ez da harriztekoa; izan be, "Etxeko" produktu bikaina izateaz gain, lekale horrek kalitate nutrizional bikaineko landare-proteina emoten dau, karbohidrato konplexu asko eta zuntz asko dauko, mineralez eta bitaminez gain (b taldekoak bereziki), elikagai ener-

getikoa da eta ia koiperik bakoa. Betiko plater bat da, txarribodatan jaten hasten zana, eta, beraz, ohikoa zan "sakramentu" guztiekaz dastatzea; halanda be, orain, ildo osasuntsuago batean, asko dira plater hori barazkiekaz soilik gozatzen dabenak. Era batera edo bestera, beti arrakasta izaten dau jaterakoan.

Giza baliabiderik eta baliabide ekonomikorik eza

"Gernikako indaben" arrakasta gastronomikoa ez da produkzioan islatzen. Geure indaba Euskal Herriko hiru barietateetako bat da, Tolosako babarruna eta Arabako Pintagaz batera, eta Euskal indabak kalitate-bereizgarria dauke. Baina Gernikako indabak duela urte asko galdu eban label zigilu hori, arrazoi teknikoengatik. Ziurtagiria lortzeko, baldintza batzuk bete behar dira, hala nola gutxienez kilo bat ekoiztea eta hautaketa- eta ontziratze-zentro bat izatea. Gaur egun, ekoizleak eta baliabideak falta direnez, bai giza baliabideak bai baliabide ekonomikoak, ezinezkoa da ziurtagiria berreskuratzea.

Baina Urdaibaiko nekazarien espiritu ekintzaileak marka hau aurrera ateratzeko ahaleginagaz jarraitzera bultzatu ebazan. Horrela sortu zan Gernikako Indaba Ekoizleen Elkarte. Gaur egun 8 bazkidek osatzen dabe, eta horietatik bi Busturialdekoak dira. Bizkaiko Lurralde Historikoko Nekazaritzako Elikagaien Sektorea

Indabak lapikoan

OSAGAIAK

- Indabak
- Urdaiazpikoa
- Okela (magala)
- Txorizoa (aukerakoa)
- Gatza

Garbitu ondo indaba eta utzi lapikoan ur hotzagaz, okela eta urdaiazpikoagaz batera, hauek be garbi; irakiten hasten danean, sutatik pixka bat kendu behar da, astiroago irakiten jarrai daian. Indaba freskoa bada, hiru ordu beharko dauz egosita egoteko, baina zaharra bada, ordubete gehiago. Txorizoa (aukerakoa) egosketa amaitu baino ordu eta erdi edo bi lehenago botatzen da lapikora, eta gatza geroago; horretarako okelarik onena magala da. Ura behar bada gehiegi lehortu dalako, bero bota, irakina eten ez daiten eta egosketa ez etentzeko. Gatz puntuan probatu eta erretiluan zatitutako okela, urdaiazpikoa eta txorizoagaz zerbitzatzen da.

*"El Amparo" jatetxearen
errezeta
(Bilbo, 1952)*



kudeatzeko zentroa dan, eta Gernikako Indaba Elkartekoa dan Lorra kooperatibak azaldu dauenez: *"Alkartea 1995ean eratu zan. Alkartearen helburuak honako hauek dira: Gernikako indaba sustatzea, zabaltzea eta merkaturatzea, marka ondo erabiltzen dala babestea eta zaintzea, eta bazkideen artean zerbitzu komunak emotea, ekoizpenari eta merkaturatzeari begira. Kudeaketa administratiboez gain, Gernikako Indabaren hazia biderkatzeaz arduratzen dan Neikerregaz egindako hitzarmenaren bidez, nekazari alkartuen beharrak asetzen dira. Neiker, Eusko Jaurlaritzako hazien Zerbitzua, eta Bizkaiko Foru Aldundiko landare-osasunaren zerbitzua alkarregaz ari dira lanean, beharrezko kontrolak egiteko eta ziurtatutako hazia lortzeko".* Elkarteko kideek, beraz, Gernikako benetako indaba saltzen dabela berma daikeez.

Azken 10 urteetako ekoizpena zenbaki bardineta mantendu da, baina 10 urte baino atzerago begiratzen badogu, ikusten da orain indaba gutxiago ekoizten dala. *"Ez dago belaunaldi-ordezkapenik. Oro har, etekin gutxi ateratzen jako emoten dauen lanari, eskuz eta eskuz egindako lana baita",* argitu dabe Lorratik. Funtsezkoa da geure baserriaren lana ezagutzea, ezagutza horri esker baserrien eta nekazarien errealitatea bere dimentsio osoan balioetsiko baita. Ez bakarrik elikadura-ekoizle lez, baita geure paisaiaren, tradizioen eta kulturaren "zaintzaile" lez be.

Ba al zenekien...?

- Gaztelaniazko *alubia* hitza (indaba) arabierazko *al-lubiya* hitzetik datorrela
- Herrialdearen arabera, izen ugari jasotzen dauz: habichuela, frijol, ejote, mongete edo fabeak, potxak, kaparroiak...eta euskaraz be izen ezberdinak daukoz: indaba, babarrun edota indiar
- Indaba mota ezberdinak dagoz, normalean kolorearen edo tamainaren arabera taldekatzen direnak: zuriak, gorriak, beltzak edo pintak
- *"Indabak etxera eraman"* esaerak lanean ahalegin-tzea esan gura dau, familiaren mantenua inoiz falta ez daiten, eta indabek familiaren sostenguan izan daben protagonismoa azpimarratzen dau.

GURE ETORKIZUNA, Km.0-n

Espiritu jasagarria, Km.0 kontzeptua, eboluzio kontziente bati erantzuten deuto, gehiegizko kontsumo tradizionalako errealitate sozioekonomiko negatiboari aurre egiteko modu bat. Jarrera hori existitzen da COVID-19ren pandemia sortu dauen dimentsio askotako krisiaren aurretik, arlo guztietan eragiten dau, ekonomian, gizartean, politikan, kulturean eta... ingurumenean be. Ziurgabetasuna, planetaz jabetu dana, munduko bilakaera ekonomikoan eta ingurumena salbatzean oinarritzen da. Etorkizun barri bat eraikitzeko, Km.0 kultura integratzaile bat eraiki behar da.



Ingurune naturala babestea, planeta babesteko, erronka global premiazkoenetako bat da. Argi dago klima-aldaketa arintzeko berotegi-efektuko gasen emisioa murriztu behar dala eta hori lortzea lehenetsia dala mundu osoan. Garapen Iraunkorreko Helburuek (GIH) klima-aldaketari aurre egitea beharrezkoa da. COVID-19k agerian utzi dauz gure ahultasuna eta ebidentzia bat: geure mugikortasuna ez da jasagarria. Guztiz adierazgarriak izan dira pandemiak gure munduan utzi dabizen ingurumen-ondorioak. Jendearen mugikortasuna murriztu egin da ia herrialde guztietan konfinamenduan eta ondorengo deseskaladetan, trafikoa moderatua zan, errepideak ia hutsik egozen... Horrek guztiak berehalako eragina izan dau ingurumenean, eta pandemia globalaren krisiak utzitako barri positibo bakanteko batzuk ekarri dauz. Nahitazko geldialdiak eragindako egiturazko mundu-krisiaren

ordainak egoera zail batera eraman gaitu guztiok. Irteerak bilatzeak faktore asko hartu behar dauz kontuan, eta, era berean, mugikortasuna murriztearen ondorioz karbono-isuriak gutxitzearen erreferentzia be, eta horregatik, Km.0 kultura sustatzea zeharkako alternatiba itzaropentsua da. "Hurbiltzea" ez da gomendagarria orain, baina hurbilean oinarritu behar dogu, jakin behar dogu jarduera-sektore desberdinen pulstua berreskuratzeko funtsezkoa dala "inoiz baino hurbilago egotea", tokikoaren alde egitea, modu iraunkorrean jardutea.

Hurbiltasuna balio bat da

Herri bakoitza bertan bizi garenon eskutik "altxatu" behar dogu, eskualde bakoitza beratu osatzen daberen herrien eskutik eta herri jarraian. Itxura guztien arabera, irteerak zero eremu sozioe-



ARRATZU ELKARTEGIA

Langunea

*Zure negozioarako
espazio baten bila?*

Nola parte hartu?

Bere proiektu enpresariala
elkartegian ezartzeko interesatuak
hemen kontaktatu
azpiegiturak@bizkaia.eus | 946 073 700





Zer da km.0?

Km zero terminoa "Slow food" filosofiaren barruan sortzen da, eta inguruan landatzen diren eta kontsumitzai-learengana iristeko milaka kilometroko garraioa behar ez daben tokiko produktu edo elikagaiei egiten deute erreferentzia.

Termino hori bizitzako esparru guztietara zabal daiteke, kultura kilometro zero, turismoa kilometro zero, merkataritza kilometro zero.

Abantailak asko dira, baina lehentasunezkoa tokiko ekonomia sustatzea da:

- Ingurumen-inpaktua murrizten dau, ez baitu eskatzen salgaiak eskala handian garraiatzea
- Aztarna ekologiko txikiagoa dauke
- Garraioan gastu ekonomiko eta energetiko txikiagoa
- Espezie autoktonoak eta tokiko kultura kontserbatzeari laguntzen deutso.

Ereñoko bizilagunek egindako bizita berezia Arrolako *Oppidumera* (Arratzu)

konomiko, komertzial, turistikoa, zerbitzu eta aisialdikoaren ikuspegitik jorratu behar dira, lehentasunezkoak eta kalitatezkoak. Etorkizunean, ekonomia zirkularraren sen komuna erabili behar da, solidarioak izatea arlo sozialean, enpresen kudeaketan, aisialdiaren antolamenduan, ingurumenaren kontserbazioan. Horren ondorioz, apustu indibiduala eta kolektiboa egin behar da, publikoa eta pribatua, tokiko zerbitzuak erabiltzeko, km.0 kontsumitzeko, saltoki txikietan erosteko, eta aisialdiaz eta herri bakoitzeko kultura- eta turismo-jarduerez gozatzeko. Horrek *slow* filosofiari erantzuten deutso, eta hortik dator Kilometro zero ekimena, gero eta hedatuago dagoena, tokiko elikagaien kontsumotik gure bizitzako beste alderdi batzuetara. Sukaldaritzako esperientzia ba-

etik haratago, zinemara joatea, iturgintza kontratatzea, turismoa egitea, museoak bisitatzea, zerbitzuak kontratatzea, gure ingurune hurbilenean erosketak egitea jasangarria da, ekonomikoki, sozialki, alde emozionalatik eta ingurumenaren aldetik be.

iza
gu
tuz
mendata





Mendata

EUSKAL ERROMERIA

Garapenak, globalizazioak, "modernitateak", aurreko belaunaldietako oso bestelako bizimodu batera eraman gaitue. Ezerk ez dirudi gauza bera, ezta dibertitzeko moduek be. Erromeria tradizionalak beti izan dira herriek eta komunitate txiki-ek alaitasuna askatzen eben denbora tarte hori, gizartearen, paisaiaren eta ohituren irudi bukolicoa.

Geure oroimen kolektiboan beste garai batzuk ekarri doguz gogora, non herriko jaietan danok, haur, gazte eta nagusi, geure herrietako plazetako erromerietan elkartzan ginan, trikitixa edo danbolinaren doinuuan. Jai-programek "dantzaldiak" be barne hartzen ebezan, non neska-mutilek dantza egiten eben, jotak, pasodobleak... dantzaldi hauek gizarte-bizitza herrikoiairen parte ziran.

Halan be, erromeria, jatorrian, santutegi edo ermita baterako erromesaldi bat zan, normalean herriguneetatik urrun egozenak, liturgia- eta jai-zentzu bikoitzagaz. Alde batetik, ospakizun erlijiosoa eukan, eta, bestetik, urteroko topaketa bat, non herri osoak parte hartzen eban, herritarrek eta agintari erlijioso eta zibilek, apaizak eta alkateak batez be. Erromeri hoi- en adibide lez, Bermeok Gaztelugatxeko Doniene ermitan ekainaren 24an oraindik mantentzen dauena nabarmendu daikegu.

Euskal erromeria tradizionalak eraldaketa jasan dau denboran zehar, baina argi dago dantza izan dala antzinatek geure ospakizun-modu gogokoena. Denboragaz, geure herrietako jaietan, erromeriak herritar, gazte eta adineko guztientzako bilgune izan ziran. Baina are funtzio garrantzitsuagoa betetzen eben, tokiko landa-komunitatearen identitatearen eraikuntza bezala. Festa, soziabilitatea, elkarrekintza, debozioa eta talde-nortasuna ziran.

Busturialdean gure herrietako askok bizirik mantentzen dabe jai kolektibo hau. Ereñok urtero, irailaren 29an, erromeria tradizionala egiten dau, "Sanmigelak". Egun horretan, "erromerian" igotzen da, oinez, Ereñoko parrokiatik Ereñozarreko San Migel ermitaraino. Bertan, meza ospatzen da eta Eleixugana izeneko gunean erro-

meria egiten da. Garai batean, udalak pattarra oparitzen eutsezan han biltzen ziran herritarrei. Bereziki 1867ko "Sanmigelak" gogoratzen dira. Ez dakigu zergaitik, baina urte hartan alkateak eta orduko apaizek erromeria egitea debekatu eben. Halan be, auzotarrak bertaratzea erabaki eben, eta bai zinegotzia, bai tanbolineroa, bertsolariak eta auzokideak... danak epaitu ebezan Gasteizen, eta zigortu, agintariek agindutakoa ez betetzeagatik. Baina Gaztelu Txiki izeneko pertsonaia batek idi-parea saldu eban dirua lortu eta epaileak erosteko. Eta, dirudienez, lortu eban, danak aske geratu baitziran. Bertako bertso zahar batean kontatzen da pasartea.

Geure beste ermita enblematiko batek, Atzarreko San Pedrok, erromeria haien oroitzapena gordetzen dau. Bertako biztanleak erromerian igotzen ziran santuari uzta onak eta arrantza ona eskatzera, eta kondairak dioenez, sorginak be bertara igotzen ziran akelarreak egitera, eta, beraz, erromerietan, bertakoek gatza be-deinkatzen eben inguruan sakabanatu eta sorginak uxatzeko.

Bizkargiko tontorrean, bere ermitan, maiatzaren 3an behin, meza kantatua eta erromeria herrikoia egiten da, garai batean oso jendetsua. Ohitura zan jai egunean ermita honetara igotzea, otoitz eginez, letaniak errezatuz. Gorozika, Morga, Etxano, Larrabetzu eta Muxikako parrokiako ordezkariak eta zinegotziak biltzen ziran bertan, eta erromeriak Etxanoren aginpide eta jurisdikziopean geratzen ziran, eta, hori sinbolizatzeke, lantza bat sartzen zan lur-rean.

Euskadiko landa-eremuetan domeketan egiten ziran antxinako erromeria tradizionalak gero eta gutxiago dira gaur egun. Mantentzen direnak geure herrietako jaietan ospatzen dira.

JOSE ARRUE,

"EUSKAL ERROMERIAREN" MARGOLARIA

Gaur egun, erromeria tradizional haien irudia eta "zaporea" Jose Arrue bezalako artista polifazetikoaren pinturei esker ezagutzen doguz, bere garaiko euskal gizartea inork ez bezala islatu ebalako. Behatzaile ona eta marrazkilaria trebea, bere lan anitza, olioak, binetak, komikiak, garaiko kronika grafiko bihurtu da. Errealismoz eta dramatismo eta heroikotasun barik, paisaiak eta herri-bizimoduak, familiaren eta komunitatearen balioa, landa-lanak eta lanbideak, aisialdia eta azokak, sinesmenak eta erritoak erakusten deuskuz. Bilboko Arte Ederren Museoan ikus daitekeen Parisko dekorazio Arteen eta Industria Modernoen Nazioarteko Erakusketarako (1925) egindako "Campesinos" formatu handiko lana nabarmentzen da.

Baina bere gai kostunbristan zerbait bada, hau "erromeria" da, behin eta barriz agertzen dana, bere gaztaroko lehen lanaren protagonista izan zanetik, "Euskal Erromeria, 1921". Laureano de Jado bildumagile bilbotarrari salduta 1908an, Arte Ederren Museoan ikusgai dago. Jai idiliko hau tonalitate kromatikiko leun, argitsu eta baketsuan bustita dago, eta norbaitek honela deskribatu eban: *"Ikuslea harekin bat egitera gonbidatzen dauen hego haizeko egun zoragarri bat"*. 2021eko urtarilaren 17ra arte, Gernika-Lumoko Euskal Herria Museoan Jose Arrueren erakusketa zabala dago.

Margolan honetan, taldekideak mugimenduan ikusten doguz beti, eta beren janzkeraren bidez identifika daikeguz: autoritatea, segurtasun-gorputzak, musikariak eta dantzariak, abere-tratulariak, parrandazaleak eta udatiarrak, eta, jakina, herriko jendea, eta inoiz falta ezin diran haurrak eta txakurrak.

Gaur egun, dantza taldeek Euskal Herriko dantza tradizionalaren hedapena sustatzen dabe. Bere filosofia plazako dantza berreskuratzea da, erromerien espiritu herrikoia berreskuratzea, dantzarako espazio barriak sortuz eta gero eta kolektibo zabalagoa inplikatur. Elkarre hauek euskal erromeria tradizionala bizirik mantentzeko ikastaroak, jardunaldiak eta ekitaldiak eskaintzen dabez. Geure eskualdean Eingo Taldearen papera nabarmentzen da, gure herriei faltan sumatzen zan zerbait emoten deuselako, kaleko musika, herriak eskatzen dauena, parte hartzera animatur, eta erromeria tradizionalan oinarritzen dana. Gure euskal erromeria ez dago desgertzera behartuta, egungo beharretara, folklorea ikusteko eta gozatzeko modu barrietara egokitzea baizik.

Ba al zenekien?

- "Euskal erromeria" koadroak 1921eko euskal erromeria bat islatzen dau Orozkon. José Arrue, Blas de Oterogaz batera, 2017ko abuztuaren 31n Orozkoko Udalak bere herriko jaietako (San Antolinak) hil osteko pregoilari eta adopziozko seme izendatu eben.
- Orozkoko herriak (290 bizilagun) bere herrian inspiratutako koadroaren antzezpen bizia egin eban 2017an.
- 2019ko azaroaren 15ean Gernika-Lumoko Euskal Herria Museoan inauguratu zan 'José Arrue barrutik' erakusketak 2021eko urtarilaren 17ra arte iraungo dau. Margolariaren ondorengoek aktiboki parte hartu dabe honetan eta Bizkaiko bost museo eta espaziok parte hartu dabe be bertan. Artista bizkaitarren 30 olio, 11 marrazki, 2 zerrenda grafiko, 12 postal, 3 egutegi, liburu, kaxa eta zeramika dagoz erakusgai.

"Jose Arrue Barrutik" erakusketa,
Gernika-Lumoko Euskal Herria Museoan.



AJANGIZ Udaletxea, Herriko Taberna **ARRATZU** Udaletxea. Herriko Taberna. Olesko Taberna.

BERMEO Udaletxea. Udal liburutegia. Kultur Etxea. Kiroldegia. Hotel atxurra. Lurdeia Landa Etxea. Royo Kontserbak. Urdaibai Kontserbak S.L. Salica Industria Alimentaria SL. Kasinoa. Antzoki Taberna. Batun Batun taberna. Izaro taberna. Omago taberna. Gurea taberna. Fruniz taberna. Andeko taberna. Atxurra taberna. Almiketxu taberna. Café Loidxe.

BUSTURIA Udaletxea. Udal liburutegia. Arroategi egoitza. Zelaiondo egoitza. Consultorio Médico de Busturia. Ekoetxea Urdaibai. Batzokia. Maidaxagane Jatetxea

EA Udaletxea. Beletxe Kultur Etxea. Ermintxo hotela. Bekale hotela. Txangurru taberna. Batzokia. Ermintxo hotela. Bekale hotela. Egoin

ELANTXOBE Udaletxea, Kultur Etxea. Santi taberna. Itxas Etxea taberna. Kraken taberna.

EREÑO Udaletxea. Ereño jatetxea. Atxoste taberna **ERRIGOITI** Udaletxea, Herriko taberna **FORU** Udaletxea. Igurco egoitza

GAUTEGIZ ARTEAGA Udaletxea. Kultur Etxea Txoko Gazteluzar. Artea taberna. Egala taberna. Castillo de Arteaga. Consultorio Médico Gautegiz Arteaga.

GERNIKA-LUMO Udaletxea. Udal liburutegia. Kiroldegia. Calzada egoitza. Torrezuri egoitza. Gernika-Lumoko Institutua. Euskal souvenirs. Urremendi Endika taberna. Mil Kolorau taberna. Azules taberna. Musutruk taberna. Sonsierra taberna. Auzokoa taberna. Scanlan's (Irlandes) taberna. Arkupe. Arriza taberna. Aribaltza taberna. Ipar Aizea taberna. Legoie taberna. Foruria taberna. Sakone taberna. Ai Ene taberna. Bakeder taberna. Etxarte taberna. Alboka taberna. Caserio taberna. Faisan berria taberna. Espaloi taberna. Twente taberna. Nere kabia taberna. Rugby taberna. Omago taberna. Boliña El Viejo jatetxea. Boliña nuevo taberna. Ares gozotegia. Bidaguren gozotegia. Txoko Bakeleku.

IBARRANGELU Udaletxea. Kultur Etxea Mar Mar jatetxea. Atxarre taberna. Bizkaine taberna. Batzokia.

KORTEZUBI Udaletxea. Udal liburutegia Herriko taberna. Bernaretxe taberna

MENDATA Udaletxea. Idatxe etxea. Artape taberna. **MORGA** Udaletxea. Kultur Etxea. Katxi jatetxe-taberna. Poli jatetxea.

MUNDAKA Udaletxea. Udal liburutegia Islal Kale. Gure Etxea egoitza. Bihotz Sakratua egoitza. Mundaka hotela. Atalaya hotela. El puerto hotela.

MURUETA Udaletxea. Ibaigune hotela. Astilleros de Murueta Kamiñoko jatetxe-taberna. Herriko taberna. Ibaigune hotela.

MUXIKA Udaletxea. Kultur Etxea. Egoitza Olabe. Consultorio Médico Muxika

NABARNIZ Udaletxea. Kultur Etxea. Aboitz taberna. Nabarniz jatetxea.

SUKARRIETA Udaletxea. Batzokia. Plazuela taberna. La Marisma.




URDAIBAI MAGAZINEKO BANAKETA PUNTUA IZATEKO INTERESATUTA BAZAGOZ

Jarri gugaz kontaktuan. Bidali eiguzu zure helbidea eta geure aldizkaria helaraziko deusugu doan.

94 625 06 06

urdaibaimagazine@nuevaeuropa.com



Euskararen Etxea

Zatoz!

www.euskararenetxea.eus



Agoitz plaza 1 48015 Bilbo, Bizkaia.

Tel.: 94 402 80 81

E-posta: info@euskararenetxea.eus

Metroa: **San Ignazio** > Lekeitio Irteera.



**Orain
Bizkaia**



Goatzeko 300
jarduera baino
gehiago

Reserva

BILBAOBIZKAIA

www.visitbiscay.eus